




Oinarri Politikoak

**AHAL DUGU
PODEMOS**



Oinarri Politikoak

AHAL DUGU
PODEMOS

AUKERA HISTORIKO BATEN AURREAN DITUGUN ERRONKAK ETA HARTU BEHARREKO ERABAKIAK

Dokumentu honek bide-orri estrategikoa proposatzen du, aurrean dugun ziklo politiko-ekonomikoean, Podemosek hartu behar dituen erabaki handi eta funtsezkoen nondik norakoak orientatzeko, garrantzi betekoak izango baitira erabaki horiek gure herriaren historiarako.

Uneotan ditugun erronka nagusiak zein diren argitzea da testu honen asmoa, eta erabaki koherente bat eskaintzea horien aurrean; uste dugu aukera paregabea dugula aldaketa politikoa gauzatzeko eta herri-subiranotasuna eraikitzeko, eta Podemosek ongi baliatu behar du aldaketarako leihoa -sakona, baina estua eta ez eternoa-, helburu horiek lortu nahi baditu.

Uneotan, hauteskundeetako eztabaidak eta tirabirak ez dira 78ko erregimenaren barruko lehia zaharkituetan kokatzen; urrun daude parametro horietatik, egiazko aukera sortu baita erregimenaren krisia, oligarkiak markatutako ildotik joan beharrean, herritarren parte hartzearekin bideratzeko eta zentzu konstituziogilea izateko. Hauteskundeetako batailak konfrontazio politikoaren muinean daude gaur egun. Mapa politikoa hankaz gora jarri duen aktore kolektiboa eta hauteskundeetarako erreminta da Podemos, eta aldaketarako aukera irudikatzen du, gehiengo zigortuak protagonista dituela. Horregatik pairatzen ari gara hainbeste eraso, zein baino zein bortitzago, eta horrek esplikatzen du gure erakundearen eta bozeramaileen kontrako kanpaina gupidagabea, gu estigmatizatu, iraindu eta kriminalizatu nahian, gure sinesgarritasuna eta izen ona zikindu nahian: hiru hamarkadatan aurreneko aldiz, boterea beren mesedetan monopolizatu dutenek eta elite pribilegiatuek agintea galtzeko arriskua sentitzen dute, eta beldur dira, zailtasun larriak baitituzte maniobratzeko eta galdua duten konfiantza berreskuratzeko.

Prozesu hori, ordea ez da kolpean gertatuko; hainbat etapatan garatuz eta sendotuz joango da, dinamika politiko azeleratu, nahasi eta konplexu baten barruan. Podemosek jakin beharko du egoerak eskatzen duen mailan jarduten eta erabaki egokiak hartzen, bere helburuak lortzeko bidean. Horretarako baztertu egin beharko ditu orain arte politikan izan diren hainbat logika makur -parte batzuei kontzesioak egitea, bereziki-, eta alde batera utzi beharko ditu talde jakin batzuk kontentatzera bideratuta dauden jokabideak, bai eta polemika antzuek ere. Era berean, ezin dugu kasu bakoitza aparte eta modu bakartuan hartu, eta asmo onez jokatu unean unean; bere osotasunean eta ikuspegi globaletik begiratu behar diogu aurrean dugun zikloari, eta erabaki estrategikoa hartu beharko ditugu helburu nagusiak lortze aldera.

1. TESTUINGURUA: ERREGIMENAREN KRISIA, OLIGARKIAREN ERASOA ETA AUKERA HISTORIKOA

Espainiako Estatu krisialdi latza pairatzen ari da. Arazoaren muina ez da bakarrik elite politikoen legimitatea galdua dutela eta sinesgarritasun arrastorik ez dutela aspaldidanik; areago doa, Estatuaren krisiak kolokan jarri baititu sistema politikoaren eta instituzioen oinarri printzipalenetako batzuk. Krisian daude, besteak beste, Estatuaren lurralde-antolaketa (Espainiako herrialdeak Estatuan antolatze modua), garapenerako eredia eta talde sozialen arteko oreka -edo desoreka, sektore ahaltsuen nagusitasuna erabatekoa denez-. Krisi honi 78ko erregimenaren krisia esaten diote batzuek, eta horrekin adierazi nahi dute orain arteko antolaketa-

eredua zaharkitua eta guztiz ahitua dagoela, eta gainbehera doala zitzu bizian. Ustelkeria da elite tradizionalen deskonposizio politiko eta moralaren adierazpiderik garbiena, korrupzioa izan baita bloke menperatzaileari eutsi dion ardatz politiko-ekonomikoa; ustelkeriaren jiran egon da elitea bloke gisa baturik -elkar hartuta eta konpontxo eginda ia beti-.

M-15 mugimenduak izugarri lagundu zuen ezintasunak eta etsipenak bideratzen, ordura arte umezurtz baitzeuden -edo modu bakartuan eta despolitizatuan bizitzen ziren-. Neurri handi batean, mugimendu horri esker sartu ditugu, gure garaiko logikan eta zentzuan, indarrean dagoen ordenako elementu inpuñagarriak eta hala moduzkoak; elementu horiek eliteak seinalatzen zituzten erantzule gisa; modu sinbolikoan sailkatzen zituzten desberdintasunak, eta kolapsatu egiten zuten, alde edo moldez, diferentzien jokoak -aniztasun mugatuaren oinarria eta erregimenari arnasa ematen ziona-. M-15ak zaharkiturik utzi zituen eliteak eta narrativa ofizialak, eta agerian jarri zuen gaurko gizartean hutsalak direla horien kontsentsuak eta ziurtasunak, eta zentzugabeak direla estatusak banatzeko finkatuak zituzten esparruak (ongi zehaztuta zegoen, esparru horietan, kontratu sozialean bakoitzak zuen eginkizuna, eta horien bidez bideratzen ziren herritarren eskakizunak). Nolanahi ere, kultur aldaketa txiki horiek ez zuten eragin bera izan alde guztietan, eta ez zuen aldarazi indar elektoral eta instituzionalen arteko oreka.

Lurrikara politiko horretatik PP atera zen irabazian, hasieran behintzat, eta, gezurra badirudi ere, ezkerreko hautesleek pairatu zituzten haren ondorioak; izan ere, astinaldi politikoak defentsiban eta erne jarri zituen eskuineko indarrak, baina, paradoxikoki, gehiengo absolutua eman zion PPri -2008ko hauteskundeetan, PSOEk jaso zituenak baino boto gutxiagorekin, hala ere-. Aldi berean, M-15ak ahuldu egin zuen hauteskundeek irabazleari eman ohi dioten zilegitasuna: hauteskundeak irabaztea ez da jada nahikoa legitimitate politikoa izateko -edo ez da baldintza bakarra bederen-, eta ez dio irabazleari txeke zuria ematen. Neoliberalismoa hogeita hamar urtez nagusi izan den eremu sozial eta kultural zatikatuan gertatu da etena, eta egoera horretan itzaliz joan dira identitate kolektiboak -klasekoa, lehenik eta behin, baina baita narratiba ideologiko tradizionalak ere-, eta ez dira kapaz izan "statu quo"arekiko nahigabeak eta deskontentuak bideratzeko.

Kalean egundoko mobilizazio-oldea sortu, eta protesta-ahotsak ugarituz zihoazen bitartean, eskuineko alderdiak inoiz baino botere handiagoa eskuratu zuen instituzioetan, eta, indar horretaz baliaiturik, Estatua aldatzeko erreforma-proiektu gogor eta anbizio handiko bat abiarazi zuen, oligarkiaren interesen mesedetan. PSOEko zentro-ezkerra noraezean zebilen, irudimen politikoa blokeaturik, eta apenas ezer esan zuen giro berriarekin bat egiteko. Konpromiso sendoa zuen, gainera, "statu quo"ari eusteko eta Troikak inposatutako doitze-programaren alde egiteko; hori dela-eta, morroi papera jokatu zuen, PPren uztarpean, hari men eginez, eta ordain latza pagatu behar izan du harrezkeroztik hauteskundeetan. IUko goi-mailako hainbat buruzagik -78ko belaunaldikoek eta giro hartako kulturari atxikita bizi zirenek bereziki-erreakzio epelak eta kontserbadoreak agertu dituzte jeneralean -salbuespen ohoragarri jakin batzuk kenduta, jakina-. Krisi organikoaren aurretiko parametroetan mugitu ziren, uste osoa baitzuten berek jasoko zutela PSOE, pixkanaka eta etengabe, galduz zihoan indarra, haren «ezkerrean» kokatuta zeudenez.

Krisialdi politikoaren erdian, ezker nazionalistako indarrek pentsatu dute -orokorrean, eta bereziki Katalunian- hauxe dela une aproposa subiranotasunaren aldeko mobilizaziori ekiteko. Hala, prozesu unilaterala abiarazi dute beren aldetik; oso estrategia errentagarria epe motzean, baina arriskutsua ere bai, ez baita batere erraza bide horretatik irtetea, 2014ko azaroaren 9an, Katalunian egin zen kontsultan ikusi zen bezala. Nolanahi ere, konstituziori buruzko arazo orokorra azalera ateratzen ari da atzera ere, bere konplexutasun guztian, nazio-aniztasunaren auzia dela bide. Bestetik, tesi «mugimentistak» eta ezkerren parte handi batekoak -kontu «sozialak» beti auzi «politikoaren» aurretik joan behar duela sinesten duen pentsamoldean iltzaturik- ez dira egokiak esperoan egoteak sortzen duen etsipenari irtenbidea emateko; izan

ere, ez dira gai pauso konkretuak proposatzeko, mobilizazioetatik harago, eta hotsa ateratzean geratzen da guztia.

Hori guztia gertatzen ari zen bitartean, sektore menperatzaileek eraso-kanpaina itzel bati ekin zioten 78ko itun sozial eta politikoaren kontra. Erasoaldi zabal eta sakon horrek helburu jakinak ditu, atzerakoiak guztiak ere: akordio konstituzionalaren parterik aurrerakoiak baliorik edo zentzurik gabe utzi nahi ditu; isilarazi egin nahi ditu herri-mugimenduak, Estatuaren desoretan kontrapisu demokratikoak direnez, eta boterea eta errentak banatzeko modu erregresiboak inposatu nahi ditu, gutxiengo menperatzaileen mesedetan. Politika estrategikoa bidegurutze batean dago, bi aukera edo bideren artean, eta ikusi beharko da nondik jotzen duen: edo oligarkia indartzera daraman bidea hartzen du edo bide demokratiko-popularra irekitzen du, zentzu konstituziogilean. Beraz, 78ko erregimenaren krisi organikoarekiko azterketa baiko-rrerriak orekatzeko bi gogoeta hauek egin behar dira gutxienez.

1) Krisialdi hau Europar Batasunean eta NATOren barruan dagoen Iparraldeko Estatu batean gertatu da. Estatuak ez du mermatua ikusi lurraldea antolatzeke ahalmena, eta bere esku du indarkeriaren monopolioa; gaitasun izugarria du portaerak eta jokabideak ordenatzeko, eta ziurtasunak eta ohiturak sorrarazteke; ez ditu pitzadura larriegiak bere aparatuetan, eta, itxura guztien arabera, ez dirudi mobilizazio sozialen eraginez edo eraso-kolpeka eroriko denik.

2) Ziur aski, krisi politikoak gutxiago iraungo du krisi ekonomikoak baino. Gaur egun gizartean hedatuta dagoen errebelia soziala «espektatiben krisia»ren ondorio da, batez ere; baina baliteke hurrengo belaunaldietan halakorik ez errepikatzea, beldurraren eta pobreziaeren diziplinak gizartean mella egin, eta belaunaldi otzanagoak sor baitaitezke etorkizunean (dagoeneko biztanleriaren herenak nozitzen du gizarte-bazterketa, nola edo hala, eta egonkor iraun dezake maila horretan). Ezkerreko militantziaren flotazio-marraren kontrako torpedoak dira bai deserria, bai errebeliari bazka ematen dioten nitxo sozial eta profesionalen hondamena (hirugarren sektorea eta GKEak, unibertsitatea, funtzionarioak, sindikalismoa, etab.). Moldaketa edo doikuntza batzuk egin ondoren -eduki sinboliko handia duen garaipen politikotzat hartu ohi dituzte ahaltsuek aldaketatxo horiek, menpeko klaseak sosegatu nahian-, oligarkiak eragozpen handirik gabe otzandu dezake diziplinaren arrastoan sartua dagoen herri bat -bereziki herri horrek normalizat hartzen dituen gizarteko klase apalen pobretze etengabea eta bazterketa, eta murrizketak onartzen dituen eskubide demokratikoetan-. Estatu Batuetan eta Margaret Thatcherren ondorengo Ingalaterran badira adibide adierazgarriak horretaz, eta aintzat hartu beharko genituzke: neoliberalismoak suntsitu egiten du, baina badaki, herri xehea azpiratu ostean, akordioak egiten ere, ordena berria eraikitzeke. Badirudi krisialdi ekonomikoak luze iraungo duela; hala izatera, oligarkiaren erasoaldiak errazago lortuko ditu bere helburuak -PSOE herdoildu baten menpekotasunarekin-, eta eliteek egokiera izango dute aurpegia berritzeko, goitik behar diren aldaketak eginez eta herritarren hainbat eskakizun bere gain hartuz (xaloenak eta ondorio larriegiak ez dutenak, nahiz eta gaur egun onartezinak diren 78ko ordenan eta Europar Batasunean, Espainiak hor jokutzen duen morroi-paperaren kariatz). Hori gertatzen bada, eta bada arriskurik horretarako, uste baino lehenago itxi daiteke aukera irekiaren leihoa.

2. 2014KO MAIATZAKO HAUTESKUNDEAK ETA JOKALEKU POLITIKO BERRIA

2014ko maiatzaren 25eko Europako Parlamenturako hauteskundeak ez ziren beste hauteskundeak bezalakoak izan, lurrikara txiki bat eragin zuten-eta jokaleku politikoan, eta hala konturatu ginen, agerian jarri zirelako, oreka batzuk kolokan zeudela eta ongi errotuak ziruditen posizioak ahulak zirela oso.

Datu adierazgarriak eman zituzten hauteskunde haiek: PPK 2,6 milioi boto galdu zituen, eta PSOEk 2,5 milioi -biak batera ozta-ozta iritsi ziren sufragioaren %49ra-. Kontua ez da bakarrik, alderdi-sistemaren historian aurreneko aldiz, hauteskundeak «galdu» zituztela (2009ko Europako Parlamenturako hauteskundeetan boto guztien %81era heldu ziren, konparazio baterako); inportanteena da ontzi komunikatuen jokoa hautsi zela lehenengoz: joko horretan, alderdi batek galtzen duena besteak jasotzen du txandan, eta halaxe doaz aldizkatzen hauteskunderik hauteskunde -joan-etorriko mugimendu horrek arnasberritu egiten du barruko aniztasuna; ateak ixten dizkio alternatiba orori, eta bi alderdi dinastikoen arteko kontsentsu sistematikoak sustatzen ditu-.

PSOEren desgastea eta krisia dira erregimenaren alderdi nagusien gainbeheraren bi giltzarriak -ez nahastu erregimena eta bipartidismoa, askok egiten duten legez-. Alderdi Sozialista izan zen (PCEk eta CCOOk hasieran jokatu zuten paperaren ostean) klase apal menperatuak 78ko Estatuan integratu zituena (eta, hortaz, baita konkista sozialak egin zituena ere), eta ezinbesteko pieza bilakatu zen, ondoren -itun sozial neoliberallean sartu zenean-, Estatua egituratzeko. PSOEk ixten zuen espazio politikoa «ezkerretik», eta bere krisiak zabaldu zien bidea aukera politiko berriei, gehiengoa lortzeko. Galdua duen prestigioa berreskuratuko balu, partez badarik ere, itxuratuko balitu barruko problemak, eta aterako balitzaio buruzagi berri bat, lotura sinboliko gutxi dituen iraganarekin, luze gabe berreskuratuko luke galdutako espazioaren parte bat; era horretan, ardaztu egingo lirateke haustura demokratikoaren aldeko aukerak -gaur egun saretuegiak-, eta espazio sendo bat, transbertsalitatean oinarritua, loratuko litzateke herritarren batasun popularraren diskurtsoaren barruan.

Beste mehatxua, haustura demokratikorako, Gobernuaren aldetik dator; izan ere, «ebidentzia» ahul batzuk aurkeztu, eta lotsa gutxirekin sinetsarazi nahiko digu doitze-neurriei esker gogorrena pasatu dugula eta atarian dugula susperraldi ekonomikoa. Ongi dakigu hori guztia ameskeria hutsa dela eta krisi ekonomikoa edonoiz areagotu daitekeela; eta beldur gara ez ote gaituen harrapatuko immobilismo politikoko nagusi den jokaleku batean.

Lanik gogorrenak egin direla eta uzta jasotzeko garaia hurbil dagoela esango digute, eta narratiba hori arrotz eta urrutikoa egingo bazaigu ere, oso arriskutsua da, sistema arnasberritzen ari delako irudipen faltsua ematen du eta.

Ontzi komunikatuen mugimendua haustearekin batera, mito bat ere erori da, uste zabaldua baitzen ezin zela gehiengorik lortu, PPTik eta PSOEtik pasatu ezean, eta, beraz, horien hegal ideologikoetako batean kokatu behar zela nahitaez. M-25ko hauteskundeek argi erakutsi dute badela bestelako aukerarik gehiengo berria lortzeko, eta, ordenaren imajinarioan sortu den pitzadura horri esker, hipotesirik arriskutsuen eta ausartenak egin daitezke, gizarteari ez baitzaizkio orain ezinezkoak iruditzen.

Podemosek 1.245.000 boto jaso ditu eta bozken %8, estatuan; hala ere, argi dago indar politiko gisa potentzial handiagoa duela, zenbakiak adierazten dutena baino. Gaur egun, eztabaida politikokoaren muinean gaude; horregatik gara erasoen jomugarik printzipalena PP eta PSOE-rentzat eta oligopolio mediatikoarentzat. Kasta defentsiban jarri da; gure hitzak erabiltzen ditu; bere burua justifikatzen du; iraindu egiten gaitu edota ahaleginak egiten ditu jantzi berriez moztortuta agertzeko. Erregimenaren iritzi-sortzaileak hor ari dira eginahalean, aurpegia garbitzeko operazio masibo batean murgildurik, eztabaida publikoa bide jakin batzuetara eramanez; ez, ordea, Espainiako problemek aritzeko, baizik eta beste garai bateko auziez edo milaka kilometrotara dauden egoerez eta protagonistez jarduteko. Horrekin batera, Podemos bere burua defendatzera behartzen dute etengabe, beste ezertaz hitz egin ez dezan. Ez dadila eztabaidatu esaten edo egiten duenaren gainean; xedea da, kosta ahala kosta, Podemosi buruzko «polemika» amai-gabean fokalizatzea atentzioa; esaten denak sor dezala zalaparta, sor dezala urruntasun-efektua, egia izan edo ez izan. Bide batez, Podemos «ezker muturreko» posizio sinboliko batean lerrokatzen saiatzen ari dira, bere boto-emileen eta jarraitzaileen dibertsitatea aintzat hartu gabe.

Podemosek setio-maniobra makurrei aurre egin behar izan die, baina ez da harritzekoa, kastak krisialdi politikoaren aurreko segurtasunetara itzuli nahi izan baitu eraso horien bidez. Hala ere, kanpaina horren bozeramaile nagusiek ez dute, gaur egun, krisialdi organikoaren aurretik zeukaten prestigioa, ezta sinesgarritasuna ere; horrek zaildu egiten dizkie gauzak eta, aldi berean, aukera gehiago sortzen dira, gure kontrako erasoek boomerang-efektua izan dezaten hainbat sektoretan. Guztiarekin, gure kontrako kanpainaren gogortasunak argi utzi du, jende askoren begietara, Podemosen beldur direla 78ko erregimeneko sektorerik atzerakoienak.

M-25ko emaitzek eta Espainiako jokaleku politikoan horiek harrotu dituzten hautsek argi erakutsi digute, batetik, batasun popular eta transbertsalaren hipotesia baliagarria zela; eta, bestetik, bete-betean asmatu genuela inskripzio- eta antolamendu-plataforma bat -egitura bat-, hizkuntza eta forma berriekin, eskaintzean; izan ere, gizartean, herri-mugimendu gisa baze-goena ez du izan orain arte adierazpiderik politikan -hutsune hori betetzeko sortu zen Podemos-. Nolanahi ere, ahulak gara oraindik antolaketa aldetik, gure erakundea jaio berria da-eta; baina, hala ere, zirrikitu bat zabaldu dugu, eta horrek azeleratu egin du denbora Espainiako politikan; astindu egin ditu oreka zaharrak; dimisioak eragin ditu, eta birmoldaketak egiteko presa larriak agertu dira bat-batean horren kausaz. Aldi berean, bide bat zabaldu zaigu, Espainian aldaketa politikoak eragiteko kapaz izango den gehiengoak eraikitzeko. Gure erronka orain maila ematea da, sortu ditugun espektatiba eta esperantza itzelen neurrian lan egitea, aukera eta baldintza apartak baititugu aldaketa politikoak eragiteko, herritarren mesedetan: ahul samar dago Gobernu-a; ez dago zantzu eta adierazle positiborik -ezta partzialik ere-, doitze-neurrietan konfiantza berritzen ari dela baieztatuz; krisian dago, txandakako sisteman, alternantziaren alderdi printzipalena; jendea nazkatuta eta haserre dago, baina, aldi berean, gero eta ilusio handiagoa du, Podemos dela medio, aldaketarako alternatiba egiazkoa egituratzen ari delako; eta elite zaharrek -elementu kultural eta sinbolikoen faltan- ezin dute errelatu bat itxuratu, konfiantza eta prestigio galdua berreskuratzeko, partez badarik ere.

Ustelkeriaren kausaz, erregimenaren egitura politiko eta instituzionalak zilegitasuna arras galdua duen testuinguru batean, Podemos indar *outsider* gisa aterata da plazara, inolako zama eta hipotekarik gabe (hortik, erregimenaren hedabideek «motxila ideologiko» estremista erants-teko ahaleginak); aldi berean, ordea, *stablishment*-ak bere jomugaren erdi-erdian jarri gaitu, eta hor dabil, eginahalean, gure prestigioa hondoratu nahirik. Posizio horrek «zahar/berri» dikotomiaren paladin bihurtu gaitu, eta behartu egiten gaitu erne egoten eta erantzukizun handiz jokatzeko, herritarrekin hartuak ditugun konpromisoak -politika arnasberritzea, gardentasunez jokatzeko eta gehiengo sozialen interesen alde egitea- mermatu ditzaketen jokabideen aurrean.

Argi eta zuzen esateko: oraintxe da mementoa, Estatuaren aparatuek, hedabideek eta finantzareek zailtasun larriak baitituzte galdutako zilegitasuna eta sinesgarritasuna nola edo hala itxuratzeko; eta, bestetik, Podemosen kontrako kanpaina basatiak ez du izan espero zuten arrakasta. Oraintxe da mementoa, bai, zeren Estatu moderno eta antolatu batean -gure kasuan nabarmentzen da indar kontserbadoreen nagusitasuna gizarte zibilean-, denborak sistemaren barruan dagoenaren alde jokatzeko baitu gehienetan; gu, berriz, arrisku handia dugu denborarekin ahulduz joateko, eta, hori gertatzera, lehenean jarraituko luke guztiak: herri xeheak zailtasun handiak izango lituzke politika ofizialean parte hartzeko; berregiten ari den alderdien sistema normalizatu egingo litzateke atzera, eta, behin jokalekua baretu eta egonkortu ondoren, zaila litzateke botere ahaltsuen interesak defendatzen dituzten alderdi politikoekin lehiatzea. Justu oraintxe, dena kolokan eta hinki-hanka dagoenean, izan daiteke Podemos palanka efikaza, dauden posizioak, orekak eta identifikazioak iraultzeko, gaur inoiz baino ahulago daudenez gero; oraintxe du Podemosek egokiera aproposa Gobernura iristeko, salbuespeneko diskurtso bat defendatuz salbuespeneko egoera baterako: dena erortzen ari da, eta alderdi eta egitura zaharrek galdua dute konfiantza, lotsarekin batera. Doazela denak; jendearen zerbitzura lan egingo duen Gobernu berri baten premia dugu, eta Podemos da hori lor dezakeen indarra, duen gaitasunagatik, prestutasunetik eta borondate irmoagatik.

Hori guztia ez da, ordea, bat-batean eta kolpean gertatuko, eta bakarka ere ez dugu lortuko; baina bide horretan, gure moduan eta ikusmoldearekin lan eginez, luze gabe irabaziko dugu. Lan egiteko modu horretara egokitu beharko ditugu gure antolaketa eta aliantzen politika, eta, orobat, horren arabera definitu beharko dugu esparru estrategikoa, ekimen politikoak aurrera ateratzeko.

Azterketa-esparru horretatik ikuspegi zabalago eta argiagoarekin eztabaidatu ahal izango dugu, ziklo politiko azeleratu eta erabakigarri honetan, Podemosi sortuko zaizkion zereginen eta desfaioren gainean. Hurrena zer pauso eman behar diren pentsatu, bai maila instituzionalan (hauteskunde orokorretan eta udal eta erkidegokoetan), bai antolaketa aldetik (begiratu beharko dugu zer erakunde dagoen prestatuta gaur egungo desfaierei erantzuteko, eta zer tresna dauzkagu gehiengo berria -botere politikorako gaitasun eta borondatearekin- osatu, indartu eta antolatzeko).

Datorren urte eta erdia garrantzi betekoa izango da Espainiaren historiarako. Egutegiak eta krisialdi politikoaren nondik norakoak hala agintzen dutenez, lehia eta tirabira politiko guztien erdian egongo dira hauteskundeak, ziklo azeleratu honetan, nahiz eta hauteskundeena ez den izango jokaleku politiko bakarra. Podemosek tresna egokiak beharko ditu lehia horietan eraginkortasunez parte hartzeko. Horrenbestez, hemen adierazi diren desfaierei erantzuteko egin ditugun azterketen arabera, hauteskundeetarako makina politiko bat sortzea da antolaketa dugun lehentasunik behinen eta printzipalena. Makina hori ez da mugatuko Podemosen egiturara; beste eragile batzuen zerbitzura ere egongo da. Gure diskurtsoa zabaltzea izango da horren eginkizun nagusia, eta 78ko erregimenaren krisialditik sortu den aukeraren leihoa aprobeztatzea, kontuan izanik sekulako eraso-zaparrada jasoko dugula, arreta desbideratzeko milaka maniobra pairatu beharko ditugula, eta amaigabeak izango direla irainak eta Podemos politikoki suntsitzeko ahaleginak. Herritarren artean borondate eta bultzada berri bat sortzen ari da, aldaketa politikoa eragiteko gehiengo sozialen mesedetan, eta guk geure gain hartu dugu prozesu hori sustatzeko erantzukizuna.

3. IRABAZTEN AUSARTU: ZIKLO POLITIKO-ELEKTORALAREN AURREAN HARTU BEHARREKO ERABAKIAK

Behin baino gehiagotan ekarri dugu hizpidera «ziklo politiko-elektoral»; izan ere, denok barrundatzen dugu 2014-2015 denboraldian egingo diren hauteskundeak ez direla besteen modukoak izango, ez edukietan ez formetan, eta aldi hori bozketa arrunt asko segidan egin ziren denbora-tartea baino zerbait gehiago izango dela Espainiaren historiarako. Lehia politikoaren kateamendua izango dira hauteskunde horiek, eta katebegi edo bozketa bakoitza osotasun baten, ziklo politiko baten parte izango da -ez zerbait bakartua eta apartea-. Hauteskundearen kateamendu horretan erabakiko da, bozketaz bozketa, zer bide hartuko duen Espainiak, eta nora joateko, bai eta nola kudeatuko duen Estatuak uneotan pairatzen ari den krisi organikoa ere: orain arte bezala, gutxiengo pribilegiatuaren faboretan jokatuko duen edo gehiengo sozialen alde egingo duen, horien eskakizunak eta beharrak aintzat hartuz.

Estatuko zikloan bete-bete gauden arren, bestelako hauteskundeetako datak mesedegarri gerta dakizkiguke ideia hori indartzeko edo hutsean uzteko (nola lan egiten dugun baldintzatuko du hori). Nolanahi ere, ez dira borroka-zelai guztiak berdinak, eta ez dute emankortasun bera guretzat; ez da sekretua inorentzat tentuz eta zuhur jokatu eta lehentasunak jarri

beharko ditugula, hauteskundeei ordena jakin baten arabera erantzuteko, nahiz eta ordena hori beti ez den izango guri komeniko litzaigukeena: aurrena, 2015eko maiatzean, udal eta erkidegoetako hauteskundeak datozkigu hamahiru autonomia-erkidegotan (Kanariak, Balearrak, Murtzia, Valentziako Erkidegoa, Gaztela-Mantxa, Madril, Gaztela eta Leon, Aragoi, Errioxa, Nafarroa, Extremadura, Kantabria eta Asturias), eta, horietatik aparte, hauteskundeak aurreratu daitezke Andaluzian eta Katalunian. Ondoren, 2015eko azaroan, hauteskunde orokorrak izango ditugu.

Hauteskunde orokorreari eman behar diegu lehentasuna; aldi berean, ordea, ahaleginean saiatu behar dugu emaitza txukunak lortzen horien aurretik izango diren bestelako bozketetan ere, Podemosen parte-hartze eraginkorra segurtatzeko; hala lortuko dugu herritarren ilusioaren olatua handituz joan dadin, estatuko herrialde guztietan herritarren borondate kolektiboa antolatuz eta errotuz doan bitartean. Horretarako, arriskuak murrizten eta aukerak zabaltzen dizkiguten erabakiak hartu beharko ditugu, eta gure mesederako diren puntuetan eta terretan bildu beharko ditugu indarrak; ez gure aurkariak harrapatu nahiko liguketen tokietan.

Zailtasunak eta trabak baditugu, noski. Ongi ikasia dugu herritarren aldeko politikak nabarmendu egiten dituela konplexutasunak, ez ezkutatu, eta jendaurreko eztabaidekin baino ez dira indartzen. Gure konpromisoa ez da makina politiko batekin, herritarren gehiengoa eragiten ari den aldaketarekin baizik. Inspirazio hori da gure proposamenaren zutabea.

Akaso ez ditugu lehia guztiak borrokatu behar izango, ez eta modu berean ere. Gure malgutasunean eta etengabe berritzeko gaitasunean dago gure indarraren parterik handiena. Ziklo politiko honi modu koherentean aurre egiteko erabakiak proposatzen ditugu hemen, helburu nagusi bat gogoan hartuta: Espainian aldaketa demokratikoa eragiteko daukagun aukera paregabea ahalik eta hobekien aprobeztatzea.

Udal-hauteskundeak

Udala da, erabaki politikoak hartzen diren gune instituzionalen artean, herritarrek hurbilen dutena. Horregatik, are eta larriago da udal-esparruan eliteek -oso antzekoak toki guztietan- espazio politiko-instituzionalak jabetzeko egiten dituzten prozesu eta azpijoko makurrak. Aurrekontu handiak kudeatzen dituzten udalerrri askotan herritarrek etsipenez ikusten dute nola berregiten diren behin eta berriz jauntxokerien eta ustelkeriaren erreperitorioak, zaharrak zein berriak.

Udalaren hurbiltasuna dela-eta, herritar gehienek ongi eta zehatz dakite beren udaletxean nork zer egiten duen eta nola; horregatik, udal-administrazioan, ez du inolako zentzurik herritarren eta ordezkari politikoaren artean egiten den bereizketa interesatuak. M-15eko fenomenoak eraikuntza-kolektiboaren ziklo bati bide eman zion herrietan eta auzoetan. Herritarrak antolatu egin ziren ostera ere, elkarrengana hurbildu, elkar ezagutu eta sareak eraiki zituzten. Urte hauetan garrantzi handikoa izan da jende, talde eta erakunde askoren lana; arazoak identifikatu eta proposamenak egin dira, eta esperientziak eta jakintzak pilatuz joan dira. Hurrengo udal-hauteskundeak, 2015ekoak, garaiz eta puntu-puntu datoz, herritarren espazio horietan azken urteotan jendeak pentsatu, eztabaidatu eta berretsi dituen proiektuak eta proposamenak esparru politiko-instituzionalera irits daitezten.

Bestetik, ordea, egia da udal-hauteskundeak goizegi datozela Podemosentzat. Egitura sendotzen gabiltza herrialde askotan, eta hazten eta hobekiago antolatzen ere ari gara, arian-arian. Gaur egun, zailtasunak izango genituzke Espainiako 8.177 udalerrietan hautagai fida-garriak eta Podemosen espiritua ordezkatzeko berme osoa eskaintzen dutenak aurkezteko. Denok ezagutzen ditugu antolaketan ditugun zailtasunen adibideak, eta badakigu Podemos ez dela abiadura berdinean eraikitzen ari herrialde guztietan, heterogeneotasun handiko

erakundea denez. Normala da; ilusio-giroa zabaldu da, eta leku askotako herritarrak saldoka datozkigu. Pozik eta harro sentitzen gara horregatik; indar hori sortzen dute aldaketa handiek. Baina zuhur eta burubidez jokatzera ere behartzen gaitu horrek, eta tentu handiz gestionatu beharko ditugu bidean sortuz doazkigun kontraesanak. Erantzukizun eta ardura handiz jardun beharko dugu, beraz.

Hala ere, hainbeste jende gestionatzea ez zaigu erraza gertatzen ari, guretzat ez baita aukerakoa hautagai-zerrendak sare klientelarren bidez osatzea, ez eta hatzez, inposizioz edo mahaipeko hitzarmen ezkutuen bidez egitea ere. Jauntxokeriak, kazikismo lotsagarria, entxufismoa eta demokraziaren bahiketa behin betiko desagerraraztera etorri gara, eta gardentasuna eta prestutasuna inauguratzera ere bai. Herritarrekin zintzo jokatu, eta esan behar diegu nahiago dugula udal-hauteskundeetara ez aurkeztea, gudan jartzen duten konfiantza eta botoaren zentzua guztiz bermatzeko gai izan gabe egitea baino. Gure eginkizuna ez da karguak hartzea, aldaketarako bidean pauso eraginkor eta atzeraezinak ematea baizik.

Aski litzateke 8.177 udal horietako bizpahirutan jokabide desegokiak agertzea, zinegotzi bakar batzuk Podemosen ildoetatik irtetea edo herritarrekin hartutako konpromisoari huts egitea, zinegotzi-akta beretzat gordez -herri askotan gertatzen den bezala-, hedabide gehienek balizko falta «Podemos marka»ren kontrako ikono bihurtzeko; hala, zalantzak sortzen saiatuko lirateke Podemosi buruz, Espainia osoan gehiengo lortzeko atarian dagoen herri-mugimenduaren hazkundea geldiarazi nahian. Ez ditugu errepikatuko kastaren alderdien hutsegiteak: batzuetan herri-eraikuntzaren erritmoa ez dator bat makineria tradizionalen pausajearekin.

Zuhur jokatu behar dugu, eta ez dugu utzi behar zirrikiturik, edozein huskeriaz baliatuko baitira herri-subiranotasuna lortzeko gaur egun daukagun tresna politikorik indartsuena ahultzeko. Erabakia ezin da zirkulu bakoitzaren iritzira ere utzi, zirkuluak gure erakundearen muina eta hauspoa badira ere; batetik, jende asko dagoelako, zirkuluetako kide ez izan arren, gudan konfiantza duena, eta horiek ere Podemosen parte dira. Erakundea berea ere badela sentitzen duten neurrian izango da Podemos tresna politiko eraginkorra. Bestetik, «Podemos marka»k, ongi egindako lanaren eta ilusio askoren ondorio den aldetik, prestigio eta itzal handia du, eta ezin da hori arriskuan jarri kasuz kasu nekez neur daitezkeen liskar eta testuinguruetan. Sortu dugun kapital sinbolikoa ez da inorena, guztiona baizik, eta aurrean dugun ziklo politiko-elektoralean -hauteskunde orokorrak lehia politikoaren adierazpide dira- burua altxatu, eta azterketa egin behar dugu, hotz eta zorrotz: zer batailatan dago erosoan aurkaria? Non itxaroten digu? Nola erreakzionatu behar dugu guk?

Hainbat udaletan ekimenak egiten hasi dira europar hauteskundeetan Podemosek zabaldutako ildotik. Ekimen horietako askok antzeko espiritua dute gidatzat: politika jendearentzat berreskuratzea, eta tresnak sortzea instituzioak ondasun komunaren zerbitzura jartzeko atzera ere. Horregatik, atseginez eta errespetuz hartzen ditugu hautagai-zerrenda horiek. Gure interesa ez dago sigletan; pobrezia eta demokraziaren bahiketa sufritzen ari diren gehiengoak eraikitzea da gure helburua. Ildo horretan lan egiten dute, udalerrietan, herritarren hautagai-zerrendek eta batasun popularra bultzatzen dutenek.

Horrela bada, «Podemos marka» gordetzea da gure proposamena; baina, aldi berean, gure indar eta gaitasun politikoa baliatu nahi dugu udal-ekimenei babes emateko. Gogotsu inplikatu gara ekimen horietan, politika berriaren eskakizunak -gardentasuna, berrikuntza, garaitzeko eta aldatzeko oportunitateak- zorrotz betetzen direla ziurtatzeko. Eta herrialde bakoitzean eta estatu-mailan daukagun indar guztiarekin egin nahi dugu hori dena. Herritarren batasuna ez da soilik izen ponpo eta hotsandiko bat guretzat, ez eta sigla-zopa edo alderdien arteko negoziazioa ere. Politika zaharreko modu horiek berregin nahi dituzten hautagai-zerrende berdin da Ganemos edo beste edozein izen hartzen badute ere- ez diegu emango ez laguntzarik, ez babesik.

Podemosek modu askotan eman dezake laguntza: zirkuluetan -edo erakundearen inguruan- duen jenderik saiatuenarekin, bere bozeramaileekin, hedabideetan duen oihartzunarekin edo hauteskunde-batailetan komunikaziorako duen gaitasunarekin, bai eta hauteskundeetara zerrenda horietan aurkezten diren Podemoseko kideekin ere (kandidatura horiek bat egiten dute, gure ustetan, 2014ko maiatzaren 25ean sortu zen olatu politikoarekin eta haren helburu lehenarekin: herritarrak boterera eramatea-. Hemen irizpide batzuk ematen ditugu erabakiak hartzeko.

► Hauteskunde-zerrendako posizio guztiek irekita egon behar dute, eta herritarrek erabakiko dituzte. Kontrakoak alderdien arteko itunen logika zaharretara eramaten gaitu, eta jakina da herritarrei konfiantza gutxiago ematen dieten hautagaiak bultzatzen dituela sarritan logika horrek. Hori ez da garbia, ez gardena, eta irabazteko borondaterik ez dago jokabide horretan.

► Herritarren hauteskunde-zerrendak eta batasun popularreko kandidaturak gauzak aldatzeko egiten dira, ez ñabarduretan galtzeko. Toki bakoitzean testuinguru jakin bat dago, konplexua eta berezia, eta estatu-mailan zentzu handikoa den logika batek ez du beti balio izaten erkidego-mailan. Ongi ulertu behar da udal-politikan aldi jakin baterako egiten diren naturaren kontrako itunek ezin dutela kinka gaiztoan jarri aldaketarako estrategia orokorra Espainian.

► Herritarren batasuneko kandidatek identitate politiko berria sortzen dute, guztiei irekia. Ez dira «lehengo iragan zaharra jantzi berriekin», eratzen ari den herri-borondate baten adierazpideak baizik; eta helburu garbi bat izan behar dute: instituzioak mafiaren atzaparretatik libratzea eta herritarren zerbitzura jartzea.

► Batasun popularreko kandidatek badakite herritarren gehiengoak kastarekin eta haien erregimenarekin bukatu nahi duela. Gehiengo horrek akaso ez ditu oraindik bere egin sinboloak eta etiketak, baina berak hauspotzen eta bizitzen du aldaketarako aukera. Transbertsaletatik joko-taula zilipurdikatu eta leialtasunak berregin nahi dituzten diskurtsoak bakarrik dira baliagarriak aurrean dugun helburu demokratikoa lortzeko. Ez da herritarren batasunen kandidateen asmoa joko-taularen ezkerrean kokatzea, zentro zabalean baizik. Politika jarrera estetiko gisa hartzen duten aktibisten eta mugimenduen kandidaturak ere ez dira, inondik inora. Gehiengo ordezkatzeko duten hautagaiak dira, eta hitz egiteko eran ere igartzen zaie, hizketa-modu laikoa eta zuzena baitarabilte. Ongi dakite borroka politiko-elektoralean dihardutela, eta parametro horietan lan egiten dute; kosta ahala kosta irabazi nahi dute, etsipena ilusio bihur dadin eta ezintasuna herritarren botere.

► Herritarren kandidaturak ustelkeriaren kontra borrokatzen dira udaletan, eta plan integralak egiten dituzte horiek betiko desagerrarazteko udalen eta enpresa publikoen gestiotik. Udal-gobernu eredu garden eta onradua bultzatzen dute, baliabide ekonomikoak prestutasunez gestionatuko dituen.

Udal-hauteskundeek aukera bikaina ematen digute herritarrei sinetsarazteko errealak direla gehiengo berria lortzeko eta irabazteko posibilitateak. Eta komunikazioa hobetzeko eta gizarteko sektore konprometitu askorekin egin diren aliantzak sendotzeko balio behar digute. Hauteskunde horiek lehenengo pausoa dira, haustura demokratikoaren bidetik, instituzioak berreskuratzea eramango gaituen estrategian.

Esparru horretan, Podemoseko kideek eta Podemosek zabaldu duen prozesuan parte hartu nahi duten herritarrek erabaki beharko dute udalerrri bakoitzean zer egin: edo lehendik dauden formulak indartu edo kandidatura propio bat sortu, eta horretan jarri ahalegin guztiak.

Autonomia Erkidegoetako hauteskundeak

Autonomia erkidegoetako hauteskundeetan -hamahiru erkidegotan egingo dira-, Podemosek kandidatura propioak sortzea proposatzen dugu; horretarako, gaitasun handiko hautagaiekin osatu beharko dira zerrendak, eta kontrol demokratiko zorrotz eta argiak jarri beharko dira. Erkidegoetako hauteskundeek aukera bikaina ematen dute maiatzaren 25ean Europako Parlamenturako gure kandidaturak lortu zituen emaitzak erkidego-mailan berritzeko. Horixe da modurik onena Podemosek, 2015eko Europako Parlamenturako hauteskundeetan erakutsi zuen indarra berresteko, 2015eko azaroan egitekotan diren hauteskunde orokorrei begira. Maiatzaren 25ean errotik aldatu genuen jokaleku politikoa. Urtebete eskas geroago, aukera paregabea dugu aldaketak atzera-bueltarik ez duela erakusteko.

Erkidegoetako Kandidaturek Podemoseko militanteen, kideen eta jarraitzaileen borondateari erantzun behar diote herrialde bakoitzean. Hautagai-zerrenda horiek erakunde osoaren babesa izango dute, hauteskundeak egiten diren erkidegotan herritar guztiek aukera izan dezaten Podemosi botoa emateko; inportantea da hori erkidegoko politika iraultzeko, baina boto aurreratu gisa ere har daiteke hauteskunde orokorrei begira. Podemosen kandidaturak dira, eta estatu-mailan lan egiten duen indar politiko bat ordezkatzeko dute erkidegoan. Horregatik, Podemosen egituraren parte diren aldetik, erakundearen barruan antolatu behar dira, eta horren ildo politikoa kokatu.

Erkidego bakoitzeko errealitatea kontuan hartuz, Podemos markarekin aurkeztuko den kandidaturak herrialde horretako baldintzetara egokitu beharko du. Batzuetan, egoerak hala eskatzen duenean, beharrezkoa izan daiteke talde zabalagoetan parte hartzea, baina kandidatura horiek ezin dira izan alderdi politikoen puzzle bat; herritarren kandidaturak -batasun popularrean oinarrituak- izan behar dute, eta borondate transbertsala izan behar dute, gainera, gehien-goak lortzeko. Gure proposamena: herrialde batean, Podemoseko kideen %ak -gutxienez- hala eskatzen duenean, eman dadila aukera erabakitzeko, agerian bozkatzuz, hauteskundeetara nola aurkeztu, edo marka propioarekin edo herritarren taldeen barruan.

Podemosen ez dute tokirik alderdikeria itsuek; gure borondatea Espainian sortu den aldaketa-prozesuaren parte izatea da. Gure eginbeharra herri subirano bat eraikitzea da, ez parte bat berregitea, eta guztien beharra izango dugu horretarako. Bihotz eta esku zabalez hartu behar ditugu orain arte gurekin bidean izan ez direnak, baina, beren identitateari eta nortasunari uko egin gabe, Podemosen metodoa eta diskurtsoa ontzat hartzen dituztenak, aldaketaren alde lan egiteko eta herritarren gehiengo berria egituratzeko. Podemosen kandidaturen ateen zabalik egon behar dute aldaketaren eta haustura demokratikoaren aldeko konpromisoa erakutsi duten guztientzat, eta berdin dio nondik datozen edo zer karnet daramaten poltsikoan; prestutasunez eta leialki lan egitea besterik ez dugu eskatzen.

Nolanahi dela ere, erkidegoetako hauteskundeetarako Podemosen kandidaturak hauteskunde primarioen bidez osatu behar dira; alderdi tradizionalak eta haien politika lotsagarriak ez bultzatzeko konpromisoa hartu behar dute, eta bat egin behar dute, Estatu osorako, Podemosek dituen edukiekin, formekin eta helburuekin.

Ahaleginean saiatuko gara zerrenda guztiak konektatzen eta lekuan lekuko auziak problema orokorrekin lotzen; hala, instituzioak eskuratzeko herri-mobilizazioen beste adierazpide bihurtuko dira erkidegoetako hauteskundeak. Podemosen indarra gorantz doala erakusteko ere balio behar dute, eta frogatu behar dute, halaber, maiatzaren 25an gertatu zena ez zela kasualitatea izan, lehen abisua baizik: aldaketa politikorako bidean koska bat igo zen; hankaz gora jarri zuen PP eta PSOEn zentralitatearen errelatua, eta kastari eta 78ko erregimenari aurre egiten dien oposizioko indar bihurtu zuen Podemos.

Hauteskunde orokorrak

Erkidegoetako hauteskundeak bigarren pausoa dira, herritarren aldeko aldaketa politikorako estrategian, eta garrantzi betea dute, errotik alda baitezakete Espainiako mapa politikoa; hau da, aldaketa politikoak atzera-bueltarik ez duela froga dezakete, eta hauteskunde orokorren atariraino ere hel daiteke horien oihartzuna. Espero izatekoa da herria garaipena lortzeko borondatearekin joango dela bozkatzera azken horietara, eta bere botoarekin galtzaile egingo dituela esku betean lapurreta egin, pobrezia zabaldu, subiranotasuna saldu eta demokrazia bahitu dutenak.

Neurria emango dugu. Bistakoa da Podemosek bizia eman diola Espainiako sistema politikoari. Kastak azaleko aldaketak eginez itxuratu nahi du arazoa, eta ahaleginak eta bi egingo ditu bi alderdi handiek gobernuan txandakatuz segi dezaten, Trantsizioaz geroztik egin duten legez; Rousseau-ren hitzetan esateko, negu gorritik baizik ez dute pintatzen udaberria. Oposiziotik egiten dituzten promesek eta sistema berritzeko iragarpenek desengainua, amorru etsia, baino ez dakarte gobernuan daudenean. Horregatik gara hain beharrezko. Gure ilusioak aldarri bat du: Ahal Dugu!

ERANSKINA: HERRITARREN HAUTAGAI-ZERRENDAK EGITEKO GIDA

Testuingurua

M-15 fenomenoak eraikuntza-ziklo bati bidea eman zion hirietan, herrietan eta auzoetan. Herritarrak antolatzen hasi ziren ostera ere, eta elkarrengana hurbildu, elkar ezagutu eta sareak eraiki zituzten. Garrantzi handikoa izan da, urte hauetan, jende eta erakunde askoren lana; batzuk Podemosea etorri ziren, beste batzuk ez. Urteotan, problemak identifikatu, proposamenak egin eta esperientziak eta jakintzak pilatu dira.

2015eko udal-hauteskundeak une aproposean datoz, herritarren espazio horiek esparru politiko-instituzionalera eraman ahal ditzaten alde aurretik jendeak pentsatu, eztabaidatu eta berretsi dituen proposamenak eta proiektuak.

Udalerri askotan herritarren udal-ekimenak sortzen ari dira, Podemosek Europako Parlamenturako hauteskundeetan ireki zuen ildoari jarraituz: politika jendearentzako berreskuratzea eta tresnak sortzea, instituzioak ondasun komunaren zerbitzura jartzeko ostera ere. Inoiz ez zaizkigu siglak interesatu; pobrezia eta demokraziaren bahiketa sufritzen ari den gehiengoa eraikitzea da gure helburua, boterea gehiengoaren zerbitzura jartzeko. Ildo horretan lan egiten dute herritarren hautagai-zerrendak eta batasun popularreko kandidaturak proposatzen dituztenek.

Gure gaitasun politikoa jokoan jartzea da gure proposamena, eta politika berriaren eskakizunak -parte-hartzea eta gardentasuna sustatzea, politika arnasberritzea eta garaipenerako eta aldaketarako lan egitea- betetzen dituzten udal-ekimenetan konprometitzea ere bai. Ekimen horien eragile izan nahi dugu, eta gure indar guztiak jarriko ditugu horretan.

Nola jarri martxan?

a) Udal-ekimenak martxan dituzten eta bidea egiten hasiak diren udalerrriak

Esan dugun bezala, udalerri askotan martxan jarriak dituzte herritarren ekimenak, arazo konkretuei aurre egiteko. Espainiako toki askotan proban jartzen ari dira era horretako formulak:

Mareas, Somos, Sí se Puede, Guanyem, IKUNE, etab.

Uste dugu -eta bide horretan doa gure proposamena- halakoetan, Podemoseko zirkuluetan parte hartzen dugunok babestu eta bultzatu egin beharko genituzkeela kandidatura horiek, gure indarrak eta gaitasunak horien esku jarriz (zerrendetan hautagai edo bozeramaile izan, hedabideekin lan egin eta gure komunikazio-gaitasuna baliatuz, besteak beste).

Kontua ez da, ordea, herritarren ekimen horiei men egitea. Podemos aldaketaren sinboloa da Espainia osoan, eta berekin dakar jendearen birziklatze politikoaren mezua. Kandidatura horiek gure laguntza jasoko badute -fisikoa, sinbolikoa, mediatikoa edo aktibista-, hiritarren ispilu izan beharko dute -edo aldatu beharko dute hala izateko-; izan ere, gizartearen ordezkari bihurtzeko asmoa dutenei gizarteak hala eskatzen die gaur egun (Podemosen DNAn dator).

- ▶ Hautagai-zerrendetako posizio guztiek irekita egon behar dute, eta herritarrek erabakiko dituzte.

- ▶ Toki bakoitzak bere testuingurua du, konplexua eta berezia, eta estatu-mailan zentzu handikoa den logika batek ez du beti balio izaten erkidego- edo udal-mailan. Ongi ulertu behar da udal-politikan aldi jakin baterako egiten diren naturaren kontrako itunek ezin dutela kolokan jarri aldaketarako estrategia orokorra Espainian.

- ▶ Batasun popularreko kandidaturak ezin dira izan siglen puzzlea; herritarren kandidaturak izan behar dute, eta izen formal hori hartuko dute.

- ▶ Herritarren kandidatek eta batasun popularreko hautagai-zerrendek ez dute kokatu behar joko-taularen ezkerrean, zentro zabalean baizik. Eta ez dira, denbora-pasa, politika-estetikoa egiten duten aktibisten eta mugimenduen kandidaturak ere. Gehiengoak lortu nahi dituzten kandidaturak dira, eta kosta ahala kosta irabazi nahi dute, etsipena ilusio bihur dadin eta ezintasuna herritarren botere.

Horiek dira gure arrazoiak herritarren kandidatei baldintza politiko-demokratikoak hain zorrotz eta argi eskatzeko (gure DNAn datoz); hortaz, baldintza horiek bete beharko dira, gure jendeak hautagai-zerrenda horietan parte har dezan, bai eta gure estetika erabili nahi badute ere. Podemosek guztien aurretik jartzen ditu herritarrek eskatzen dituzten baldintzak, eta hori garbi izan behar dute gure erakundea lehendik sortuak diren proiektuetan sar dadin nahi duten guztiek.

Badakigu kandidatura horietan parte hartzen dugunean, aurrejuzguak sortuko direla, eta, aldi berean, egingo direla keinu estetikoak eta semantikoak gure ezaugarrien gainean, baina, guztia-ekin, gure markak frogatua du indar handia duela hauteskundeetan.

Bestetik, gure DNA politikoarekin bat egiten ez duten kandidatek ezingo dituzte erabili, inola ere, gure-gureak diren koloreak, sinboloak eta keinu estetikoak.

b) Herritarren kandidaturarik gabeko udalerririk

Halakoetan, udal-hauteskundeek eskaintzen diguten aukeraz baliatu behar dugu herritarrei dei egin eta antola daitezen eskatzeko -auzo-elkarteen inguruan, adibidez, edo herrian lehendik lanean ari den beste elkarteren batean-, inportantea baita udal-gobernura iristea, jendearen behar eta eskakizunei erantzuteko. Horrek baditu bere abantailak, ez baitago eskatu beharrik sigla egonkor jakin batzuekiko konpromiso politikorik. Nolanahi ere, talde horiek izango dituzte beren ezaugarriak -M-15eko mugimenduan sortuak eta Podemosek bere egindakoak-, herri-izaera izango baitute halabeharrez, eta udalerririk gabeko bakoitzaren behar konkretuei erantzuteko sortuko baitira.

Pauso hauek eman behar dira herritarren taldeak sortzeko, salbuespenak salbuespen:

1. Herritarrekin hitz egin eta animatu, udal-gobernua eskuratzeko antola daitezten. Jendeak aukera paregabea izango du berak sortutako talde zabal eta malgu batean parte hartzeko, sendotuta dagoen egitura zurrun eta itxi baten zamarik gabe.

2. Herritarrei -bereziki Podemosek hurbil sentitzen direnei- batzar batera dei egin, hautesle-talde edo -zerrenda bat eratu dezaten. Batzar horretan konpromiso oinarrizko batzuk hartu beharko dira hautesle-taldearekiko. Hauek dira baldintzak, etorkizunean Podemoseko hedabideetatik eta bozeramailetzatik laguntza jasotzeko.

► Hautesle-zerrendako posizio guztiek irekita egon beharko dute, eta herritarrek aukeratuko dituzte.

► Herri bakoitzak bere testuinguru propioa du, konplexua eta berezia, eta estatu-mailan zentzuzkoa den logika bat ez du beti balio izaten erkidego-mailan. Ongi ulertu behar da udal-politikan aldi jakin baterako egiten diren naturaren kontrako itunek ezin dutela kinka gaiztoan jarri aldaketarako estrategia orokorra Espainian.

► Batasun popularreko kandidaturak ezin dira izan siglen puzzlea; herritarren kandidaturak izan behar dute, eta izen formal hori hartuko dute; ez dira, hortaz, hauteskunde-koalizioak. Beste erakunde politikoetako kideek parte hartu nahi badute, herritar moduan egin beharko dute -ez dute beren iritzi politikoak ezkutatu beharrik, noski, baina ezin dituzte horiek inposatu, sigla jakin batzuen aginduei jarraituz-.

► Herritarren kandidatek eta batasun popularreko hautagai-zerrendek ez dute kokatu behar joko-taularen ezkerrean, zentro zabalean baizik. Eta ez dira, denbora-pasa, politika-estetikoa egiten duten aktibisten eta mugimenduen kandidaturak ere. Gehiengoak lortu nahi dituzten kandidaturak dira, eta kosta ahala kosta irabazi nahi dute, etsipena ilusio bihur dadin eta ezintasuna herritarren botere.

3. Tokian tokiko beharrekin eta espirituarekin bat datorren formula bat hautatu, kontuan hartuz herritarren mugimendu irekiaren ideia bultzatu behar duela: XXX Irekia, Ahal Da, XXX Gara

4. Sinadurak bildu, hautesle-talde bat eratzeko. Erraza da; dokumentu honetako Eranskinean zehazten dira baldintzak. Sinadurak biltzeko kanpaina hauteskunde-kanpainaren parte da; horren bitartez, jendearen aurrean ezagutzera eman eta, ziur aski, herritar gehiago inguratuko zaizkigu, udala jendearentzat eskuratzeko prozesuan parte hartu nahian.

5. Herritarren eskakizunak jasotzen hasi, aurrerago udal-hauteskunde programan sartzeko.

6. Herrian prozedura irekia zabaltzeko deia egin, bozketa primario irekietan gure hautesleak aukeratzeko -dena garbi egiten dela ziurtatu behar dugu-. Podemosek herritarren eskura jarriko ditu behar diren tresna informatikoak.

7. Eskualdeko Hauteskunde Batzordean aurkeztu kandidatura.

c) Funtsezko tresnak udalerrriak eraldatzeko, garatzeko eta demokratizatze

Oinarrizko konpromiso horiez gainera, Podemoseko kideek badituzte bestelako erantzukizunak herritarren kandidatetan -lehendik badirenetan edo datozen hiletan sortuko direnetan-; izan ere, gutxienez hiru tresna aztertzeko eta martxan jartzeko proposamena egingo dute, udalak eraldatzeko, garatzeko eta demokratizatze, herritarren parte-

hartzearekin; tresna funtsezkoak dira hirurak ere, eta udal-esparruan lan egiteko ardatz bihurtuko dira Podemoseko kideentzat.

1. Udal-zorren auditoretza, herritarren aldetik

Zor pribatuaren sozializazioa Estatuan egin zen lehenik, baina pixkanaka Udal Administrazioa ere heldu zen. Zorrak ito egiten du, baina, horrez gainera, kontrol sozial eta politikorako tresna ere bada. Horregatik, gure erantzukizuna da behar diren tresnak eta mekanismoak sortzea, hori guztia bistan jartzeko. Udal-zorren auditoretza, herritarren aldetik, ez da erreminta berria; atzerriko herrialde batzuetan erabili izan dute eta Espainiako zenbait udalerritan ere bai. Herritarren batzordeen eta Podemoseko kideen konpromisoa eta erantzukizuna izango da, auditoretza horiek lortzeko, lehendik badauden ekimenekin batera lan egitea, haiekin jakintzak eta indarrak biltzea, eta ekimenak martxan jartzea, kooperazio-sareen bidez -aurretik daudenak erabiliz batzuetan edo berriak sortuz, hala behar denean).

2. Udal-aurrekontuak herritarren parte-hartzearekin

Tresna funtsezkoa da Podemosentzat, udal-politika publikoen ardatza baita, dauzkan bertute onuragarri anitzengatik -kontuen gardentasuna segurtatzen du, besteak beste-. Oinarrizko arau batzuk jarri behar dira, lehenik eta behin, denon artean eginak eta onartuak; behar-beharrezkoa dira, prozesuak ongi funtziona dezan, horien bidez parte hartu, bozkatu eta kontrolatu ahal izango baitituzte herritarrek -herritar guztiek- aurrekontuak. «Obedituz gobernatu» printzipioari jarraituz, agintariek kontuak eman beharko dizkiete herritarrei, eta, argi eta zehatz, esplikatuz beharko diete zertarako erabili diren aurrekontuak; gardentasun-neurri horri esker izugarri murrizten dira ustelkeria-kasuak, faboritismoak eta klientelismoa. Herritar guztien artean aztertu eta baloratu ondoren, mekanismo hori legez ezarri beharko litzateke, eta nahitaezkoa izan beharko luke hori betetzea.

3. Udalen finantziazio-eredu berria

Herritarren udal-kandidaturek ekimen bat bultzatu beharko dute, udal-araubideen oinarri berri batzuk aztertzeko; eta adreiluan oinarritutako udal-finantziazioaren eredu zaharra aldatu beharko dute, prozesu konstituziogilearen parametroen arabera. Horri guztiari legitimitatea emateko, proposamen konkretuak ere egingo dituzte, udal-finantziazioan zimendaturik. Finantziazio-eredu berri bat litzateke, tokian tokiko baliabideetan oinarritua eta ekonomia sozial eta jasangarri berri batera moldatua -eredu horrek behar den finantziazioa lortu beharko du, noski, ekimen horiei ekiteko-.

ERANSKIN JURIDIKOA

Zer da hautesle-talde bat?

Hautesle-talde edo -elkarteak erakunde politikoak dira, hautesleen sinadura-kopuru jakin baten abalarekin sortzen direnak (kopurua aldagarria da); eta hauteskunde-prozesu jakin eta konkretu batean hautesle-zerrendak aurkeztu ahal izateko bakarrik eratzten dira.

Ez dute, beraz, irauteko bokaziorik; ez dira alderdiak, eta, horrenbestez, ez dute zertan izenik eman alderdi politikoaren erregistroan.

Hautesle-talde bakoitza autonomia eta independentea da besteetatik. Hauteskunde-barrutia da politikan jarduteko duen esparrua -ezin dira sartu horren barruan hautagai-zerrenda kolektiboak; ezin dute parte hartu barruti batean baino gehiagotan, ez eta federaziorik edo koaliziorik osatu beren artean), eta eratzekoan helburutzat zuen hauteskunde-prozesu konkretuak irauten duen arteraino hedatzen da horren balioa denboran -ezin da hortik aurrera luzatu-.

Nola sortzen da hautesle-talde bat?

Hautagai-zerrendak aurkezteko, hautesle-taldeek sinadura-kopuru jakin bat behar dute -udalerriko hautesle-erroldan erregistratuta dauden herritarren artean bilduak-, eta notario batek edo udal-korporazioko idazkariak baimendu eta autentifikatu beharko ditu sinadura horiek, baremo honen arabera.

- ▶ 5.000 biztanletik beherako udalerrietan, erregistratuta dauden pertsonen%1eko gutxienez -sinatzaileen kopurua hautatu daitezkeen zinegotzien doblea baino gehiago izatekotan betiere-.
- ▶ 5.001 biztanletik 10.000ra bitartekoetan, 100 sinadura gutxienez.
- ▶ 10.001 biztanletik 50.000ra bitartekoetan, 500 sinadura gutxienez.
- ▶ 50.001 biztanletik 150.000ra bitartekoetan, 1.500 sinadura gutxienez.
- ▶ 150.001 biztanletik 300.000ra bitartekoetan, 3.000 sinadura gutxienez.
- ▶ 300.001 biztanletik 1.000.000ra bitartekoetan, 5.000 sinadura gutxienez.
- ▶ Beste kasu guztietan 8.000 sinadura gutxienez.

Hautesle edo kargu hautatu bat ezin da aurkeztu hautagai-zerrenda batean baino gehiagotan. Garrantzi handikoa da puntu hori, bete ezean, sinadura-orri osoa baliogabe utziko luke eta.

Non eta noiz aurkeztu behar dira hautagai-zerrendak toki-hauteskundeetan

Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak izendatzen du, aurkezten du eta erabakitzen du horren inguruko guztia, hartarako eskumena eta ahalak dituenez. Probintziako buletin ofizialean argitaratzen da hautagaiak aurkezteko epea, behin hauteskundeetarako deialdia eginda dagoenean, eta argi eta garbi adierazi behar ditu hautesle-taldearen izena, horren siglak eta ikurrak, bai eta horietan doazen hautagaien izen-abizenak ere.

Hauteskunde-batzordeko idazkariak zenbaki korrelatibo bat emango dio hautagai-zerrenda bakoitzari, aurkeztu den ordenaren arabera, eta ordena hori argitalpen guztietan gordeko da (Hauteskunde Araubide Orokorreko 46.9 artikulua, ekainaren 19ko 1985/5 Lege Organikoari dagokiona). Hautagai-zerrenda aurkezten denean (Barne Ministerioko webgunetik deskarga daitezkeen formularioetan egin behar da), Hauteskunde Batzorde Zentraleko 1999ko martxoaren 15eko Instrukzioan jasotako dokumentazioa ere aurkeztu behar da horrekin batera. Aipatutako Instrukzioak hau agintzen du:

Hautesle Batzorde Zentralak jarraibideak eman ditu kandidatek aurkeztu behar duten dokumentazioaren gainean, kandidatek hautagarritasun-kondizioari dagokionez; dokumentu hauek aurkeztu behar dira, besteen artean: hautagaien inskripzio-ziurtagiria, eroldako zerrendetan erregistratuta daudela frogatzearren, edo, hautagaien bat zerrenda horietan agertzen ez bada, aurrekari penalen ziurtagiri negatiboa; era horretan, egiaztatuta geratuko da hautagaiak eskubide zibilen eta politikoen jabe direla, eta bere osoan balia daitezkeela horietaz. Orobat, hauteskundeetan parte hartzeko, baitezpada aurkeztu behar dituzte hautagai-taldeek legeak eskatzen dituen sinadura-kopuruaren egiaztatiriak.

Hautagai-zerrenda aurkezteko unean, kandidatek ordezkaritza orokor bat izendatu behar da, eta hantxe bertan onartu beharko du kargua.

Informazio gehiago:

- ▶ 1985/4 Lege Organikoaren 44, 46, 177, 186, 187, 187 bis artikulua, ekainaren 19koak, Hauteskunde Araubide Orokorreko dagozkionak.
- ▶ Hauteskunde Batzorde Zentraleko Instrukzioa (1999ko martxoaren 19ko BOE 67. zk). Hautagai-zerrenden aurkezpenean, eraman behar den dokumentazioaren gainean.

Zer da hauteskunde-parekotasuna?

Ordezkaritza politikoaren esparruan, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua edukitzean datza hauteskunde-parekotasuna.

Hauteskunde Araubide Orokorreko Lege Organikoak berariaz agintzen du hauteskunde-zerrenden osaketak orekatua behar duela izan hauteskunde hauetan guztietan: Diputatuen Kongresurako hauteskundeetan, tokiko hauteskundeetan, Consell Insular-etarako hauteskundeetan, Kanariar Uharteetako Kabildoetarako hauteskundeetan, Europako Parlamenturako eta Autonomia Erkidegoko Legebiltzarretarako hauteskundeetan.

Hautagai-zerrenden osaketa orekatua izan dadin, baldintza hauek bete behar dira:

Zerrenda osoa kontuan hartuz, eta kasu guztietan bost postuko tarte bakoitzean, sexu bateko edo besteko hautagaiak ezingo dira ordezkatuta egon % 40tik beherako proportzioan. Agindu horretatik kanpo geratzen dira, salbuespen gisa, 3.000 biztanletik beherako udalerrak eta 5.000 biztanletik beherako uharte txikiak.

Informazio gehiago: Hauteskunde Batzorde Zentraleko 2007 / 5 Instrukzioa, apirilaren 12koa, LOREG-eko 44 bis eta 187.2 artikuluen aplikazioari buruzkoa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako martxoaren 22ko 2007 / 3 Lege Organikoak emandako idatzian.